

«Txirrindularitzaz asko jakin gabe hasi nintzen eta ez nuen espero hain urruti iristea»

M i k e l
Nievek
txikita-
tik ki-
rolare-
kin eta

Leitzarekin oso lotuta egon den bere ibilbidea errepasatu du GAUR8rako, 38 urterekin txirrindularitza profesionalari agur esan ondoren.

Giroan hiru etapa irabazi ditu, Vueltan eta Dauphinen beste bana, 22 itzuli handi korritu ditu eta 16tan lehenengo 20etan bukatu du. Froome-ekin bi Tour eta Vuelta bat ere irabazi ditu, baina, emaitzen aurretik, bizikletari esker bizitako esperientziak azpimarrazten ditu. Kirolariaren bizimoduaz gozatu egin du eta ez du baztertuko.

Elkarrizketa egin ondoren Ibai Azurmendi Leitzako beste profesionalarekin gelditu da bizikletan ibiltzeko eta hitz egin dugun bitartean aurten bertan pilota profesionala utzi duen Oinatz Bengoetxea txapeldun handia, haurtzaroan bere gelakide izandakoa, agurtu du, euskal kirolari asko eman dion herrian.

Leitzan 1984. urtean Oinatz Bengoetxea, Inaxio Perurena eta zu jaio zineten. Hau da marka 3.000 biztanle dauzkan herri batentzat.

Kasualitatea da. Juxtu urte horretakoa da Eibarrekin Bigarren Mailara igo zen Aimar Sagastibeltza ere, oraindik futbolean ari dena. Oinatz eta biok gela berean ibili ginen eta oraindik badut harremana berarekin. Gero nahasketak egingen ziren eta denak elkarrekin

MIKEL NIEVE

TXIRRINDULARI OHIA

Profesionaletan egin duen 15 urteko ibilbide bikaina itxitzat eman du aurten Mikel Nieve leitzarrak. Beti bezain umil eta apal errepasatu dugu elkarrizketa honetan.

Joseba Iturria



ibiltzen ginen jolasaldian pilotan eta futbitoan jokatzeko, baina ez nintzen kirol horietan lehiatu. Arratsaldeetan ikastolatik kanpo ere, batzuetan pilotan, besteetan futbolean, igeriketan ere bai... Futbitoan urte pare bat egin nituen lagunekin partidak jokatzeko. Beti izan dut kirolarekiko joera.

Kirol askotan aritu ondoren bizikletaren aldeko apustua egin zenuen.

Gustuko nuen bizikleta, txirrindulari eskola bat zegoen herrian eta aitak ere kirolerako zaletasuna zeukan. Berak animatuta, garai hartan denetik egingen nuen eta ziklismoan bai hasi nintzela lehiatzen. Hamar urterekin “hasiberri” bezala, gero alebin, infantil, kadete, junior... Maila guztietan.

Berandu nabarmendu zinen, batez ere junior mailako az-

ken urtearen bukaeran jantzi zenuen Caja Ruralen maillo-tarekin.

Kadeteetako bigarren urtean irabaztea lortu nuen, jubentzetako lehenengo urtean postu asko, eta bigarren urtean garaipenak iritsi ziren. Hemengo klubaren zuzendariak hemengoak ziren, Leitzako eskolakoak, baina hango babeslea hartu genuen hemengoak ez zuelako jarraitzen. Hor bai hasi nintzela ondo ibiltzen. Espainiako selekzioarekin Mundialerako zerrendan sartu ninduten, kontzentrazio batean egon nintzen...

Afizionatuetan Agurainen irabazi zenuen 2004an, baina garaipen bakarra izan zen lehen lau urteetan. Kostatu zitzaizun nabarmentzea.

Garai hartan jendea lasaiago eramaten zuten. Zaharrago



Argazkiak: Jagoba MANTEROLA | FOKU

IBILBIDEA

Mikel Nieve 2008an pasatu zen profesionaletara Orbearekin, eta ondoren Euskaltel (2009-2013), Sky (2014-2017), Mitchelton (2018-2021) eta Caja Rural (2022) izan dira bere taldeak. Bost garaipen lortu ditu: hiru Giroan, bat Vueltan eta beste bat Dauphinen. 22 itzuli handi korritu ditu eta 16tan lehen 20en artean sailkatu da.



pasatzen zinen profesionale-tara, amateurretan urte batzuk egin ondoren. Oraingoa-rekin konparatuz ez zegoen hain profesionalizatua. Hemen ere ez neukan erreferenterik eta nire martxan joan nintzen. Beharbada jubeniletan gauzak errazegi egin nituen eta pentsatzen nuen horrela eginda ondo ibiliko nintzela; baina ikasi nuen gauzak ondo ez banituen egiten, lanik egiten ez banuen, ez banintzen zaintzen, besteek irabaziko zidatela.

Bost kilo galdu zenituen garai horretan?

Bai, afizionatuetan gizenago nengoen profesionaletan baino, baina ez da pisu kontua, gauzak ondo egitea baizik.

Lau urte afizionatuetan Caja Ruralen eman ondoren, 2006an bukatu zenituen

ikasketak. Zalantzak izan zenituen jarraitu ala ez erabakitzeko, edo azken urte bateko apustua egiteko?

Aurreko urtean hasi nintzen oso ondo ibiltzen, baina Bidasoa baino lehen erorketa nahiko gogorra eduki nuen. Errekuperatzen saiatu nintzen, baina behar baino sasoi txarragoarekin Nafarroako Itzulia egitera joan nintzen eta ez zen ondo atera. Gero tendinitis bat eduki nuen eta laugarren urte hori lesioekin nahiko aldrebes joan zen, baina etxetik babesa jaso nuen. Urte on bat egiten saiatu behar nuela, ateratzen bazen ondo eta bestela beste zerbait egingo nuela. 2007an hasieratik ondo hasi nintzen eta ondo atera zen.

2007an lau garaipen lortu zenituen Valenciagan, inportanteena, Llobregaten, Elgetan eta Altsasun.

Bai, inoiz ez nintzen izan irabazlea baina erregulartasun bat eduki nuen eta urte horretan nahiko ondo ibili nintzen, bosgarren urtea ere bazen. Espainiako Kopan postu onak lortu nituen. Aurreko urtean ere Espainiako Kopan oso ondo ibiltzen hasi nintzen, baina erorketa eduki nuen. Valenciagan garaipen bat lortzeak konfiantza dezente ematen dizu eta, zorionez, pasatzeko aukera eskaini zidan Orbeak.

Orbearekin 2008. urtean profesionaletara pasatzeko dei horrek lasaitasuna eman al zizun, helburua lortuta?

Bai, baina inoiz ez dut ikusi helburu bat bezala. Gehiago izan da gauzak ondo egin, ahal dudan guztia eman, eta etortzen bada ondo eta bestela behintzat ahal duzun guztia egin duzu. Inoiz ez naiz itsutu ez garaipenak lortzearekin ez

profesional izatearekin. Azkenean lana ondo egiten baduzu emaitzak etor daitezke ala ez, baina behintzat zu saiatu egin zara. Ondorio bat bezala ikusten dut gehiago.

Lehen urtean Orbearekin hoge onenen artean egon zinen Euskal Bizikletan eta beste itzuli batzuetan. Zuretzako errazagoa izan zen profesionaletan nabarmentzea afizionatuetan baino?

Ez, alderantziz, askoz zailagoa da profesionaletan ondo ibiltzea. Kontua da afizionatuetan, hasierako ezjakintasun horrekin ez nuela behar bezala entrenatzen eta zaintzen nire burua. Gauzak ondo egiten saiatu nintzenean pixkanaka nire maila onena ematen joan nintzen. Maila baduzu, afizionatuetan askoz lasaiago ibiliko zara profesionaletan baino, maila askoz altuagoa da-eta.

Euskaltelera azkar pasatu zinen, 2009. urtean, eta 2010ean Vueltan debuta egin eta garaipen handia lortu zuen. Ezustekoa izan zen?

Azkenean prozesu bat da. Profesionalago izan eta gauzak hobeto egiteko prozesua. Nola entrenatu ikasten joaten zara eta azkenean zure maila onena ematen duzu. Aurreneko urtean itzuli batzuetan aurreneko hamarretan sartzea lortu nuen eta maila polita ematen hasi nintzen. Bigarren urteko hasiera nahiko aldrebes joan zen gaixotasun pare bategatik, baina gero ekainean Vueltako etapa batzuk ikusten egon nintzen, Cotobellokoa horien artean, Igor Anton eta Beñat Intxaustirekin. Zerrenda horretan nengoen, sartu nintzen taldean eta aurreneko itzuli handia izateko

espero zen baino maila hobea eman nuen.

Cotobellon irabazi baino bi egun lehenago, Igor Anton erori eta etxera joan zen, Vuelta irabazteko bidean zegoenean. Nolakoa izan zen txip aldaketa taldean? Nola bizi izan zenuen une hori?

Egia da Igor etxera joatea taldearentzat kolpea izan zela, baina nik ikusten nuen oso ondo nengoela. Igorren ondoren ibiltzea lortu nuen eta konfiantzarekin nenbilen. Igor erori eta hurrengo egunean Lagos de Covadonga etapa zegoen eta 14. bukatu nuen eta hor ikusi nuen ihesaldi batean sartzen banintzen nire aukerak edukiko nituela. Egun horretan Amets Txurrukarekin eta Juanjo Orozekin ihesaldietan sartzen hasi ginen eta konfiantzarekin atera nintzen, garaipen hori lor nezakeela sinetsiz.

2011n Gardeccian 6.400 metroko desnibela zuen etapa irabazi zenuen Giroan. Egun horretan ez zegoen hainbeste beharrik, aurretik Zoncolanen Igor Antonek irabazi zuelako, baina zuk ere bilatu zenuen zure aukera.

Bai, egun horretan berdin. Azkenean ikusten nuen maila ona ematen ari nintzela eta dena nuen, anbizio puntu hori, banekien ondo nengoela, baina pelotoitik ez genuela irabazi behar indartsuagoak zeudelako, eta ihesalditik saiatu behar zen. Konfiantza hori baneukan, sartzen banintzen nire aukerak edukiko nituela. Egun horietan ongi geunden eta ondo atera zen.

Nola bizi izan zenituen Euskalteko azkeneko bi urteak? Fundaziotik banatzea,

kanpoko fitxaketak, desagerpena...

Hala tokatu zen. Azkenean al-daketa asko egon eta gero tal-dea bukatu egin zen. Arraroa zen, baina momentuan pasa-tzen da eta horretara moldatu beharra daukazu.

Orain baloratzen dugu zer izan zen Euskaltel hori?

Baina desberdina ere bada. Nik uste dut Euskaltelek kris-toren meritua zuela denbora hartan euskaldunekin baka-rrik maila horretan egotean, baina garai horietatik txirrin-dularitza globalizatzen joan da, zabaltzen joan da, taldeak handitzen joan dira, egutegi zabalagoa osatu beharra dau-kazu. Orduan lortu genuena, euskaldunekin bakarrik, mo-mentu honetan ezinezkoa iru-ditzen zait World Tourreko tal-de bat mantentzeko.

Bukaera polita izan zen, Vuel-tako podiumean esan zenion agur Euskalteli.

Bai, alde horretatik bai. Ez zen nire itzuli onena izan, baina azkenean nire onena ematen saiatu nintzen eta behintzat taldekako sailkapena irabazi genuen. Vuelta talde onena bezala bukatzea uste dut poli-ta izan zela. Nik uste dut de-nak saiatu ginela gure onena ematen eta alde batetik tristea izan zen, baina behintzat bu-kaera ez zen hain txarra izan.

Skyren eskaintzaz gain, beste talde batzuek liderra izatea proposatu al zizuten?

Ordezkarriak eskaini zidan Sky-rena eta nik erabaki nuen ni-retzat onena zela, baina lider bezala ez dakit inork proposa-tu zidan, eta ez dut hori bilatu.

Lehenengo lau itzuli handie-tan hamargarren izan zinen



sailkapen nagusian bi etapa irabaziz. Hor erakutsi zenuen itzuli handietarako txirrin-dularia zinela. Inoiz ez duzu liderra izan zintezkeen zalan-tza eduki?

Ez. Inoiz ez naiz irabazlea izan eta gutxiago itzuli handietan. Erlojupekoetan ondo moldatu behar zara. Itzuli handi batean aurrerago egoteko beste maila bat erakutsi behar da eta seku-la ez dut ikusi itzuli handi ba-tean egin dudana baino askoz gehiago egiteko ahalmena.

Euskaltelen liderra izan zinen 2013 urteko Tourrean...

Eta 2012ko Giroan ere bai. Gi-roan bederatzigarren geratu nintzen eta Tourrean hamabi-garren. Baina ez dut eduki li-derra izateko maila.

Lau urte eman zenituen talde onenean, Froomeri lagun-

«Ez dut eduki liderra izateko maila. Itzuli handi batean aurrerago egoteko beste maila bat erakutsi behar da eta sekula ez dut ikusi itzuli handi batean egin dudana baino askoz gehiago egiteko ahalmena nuenik»

tzen (2014-17). Euskaltelekin alderatuz, guztiz kontrakoa?

Kontrakoa ere ez. Kanpotik be-ti hitz egiten da Sky oso meto-dikoa dela, detaileak asko zaintzen dituela, baina azke-nean berdina da: jende oso profesionala, maila oso altua eta exigentzia zuk sartzen dio-zuna zure buruari. Eta badaki-zu horrelako talde batean erantzun beharra dagoela. Egia da taldea askoz handia-goia dela, baliabide gehiagore-kin, jende gehiago laguntzeko, baina azkenean zuk egin behar duzu lana eta zuk eman behar duzu zure maila onena.

Zer sentitu zenuen Froomek zu bere lankide onena izan zi-nela esan zuenean?

Ez dakit, ez zait iruditzen hori horrela denik baina benetan polita da berak hori esatea. Be-rak beti estimatu nau asko, baita nik bera ere. Horrelako txirrin-dulari batek hori esatea asko eskertzen da eta nik ere eskertu nion.

Zuretzako bera izan da lide-rrik onena?

Bai, azkenean berarekin bi Tour irabazi genituen, eta baita Vuel-ta bat ere. Berak irabazten zue-nean zure lanak gehiago luzi-tzen zuen. Azkenean urte horiek oso onak izan ziren eta luzimendu pertsonalerako ere lan horrek asko balio izan zuen.

Bi Tour jarraian irabazi zeni-tuzten, momentu horretan Froomek gehiago lortuko zi-tuela ematen zuen, baina zuk beste bide bat hartzea erabaki zenuen Mitchelton-BikeEx-changerekin aritzeko (2018-21). Zergatik?

Momentu horretan pentsatu nuen aldaketa bat ondo etorri-ko zitzaidala. Batzuetan alda-ketak ondo etortzen dira moti-

bazio aldetik eta egin zidaten eskaintza oso ona zen.

Sky eta Mitcheltonekin beste bi etapa irabazi zenituen Gi-roan. Zure lasterketarik mai-tatuena izan al da?

Izan liteke. Hor lortu nituen nire emaitza onenak eta egia da asko gustatu zaidala beti. Baina beste itzuli handiak ere bai. Nahiz eta emaitzarik ez lortu, asko gustatzen zaizkit.

Garbi dago itzuli handietara-ko txirrin-dularia izan zarela, horretarako dituzula ezauga-rrri egokienak, erresisten-tzia... Besteak behera doaze-nean zuk beti gora egiten duzu.

Bueno, hirugarren asteak noizbait luzeak egin zaizkit eta eduki nituen bigarren as-teak hirugarrenak baino ho-beak. Giroan irabazitakoak, az-kenekoa ezik, denak bigarren astean lortu nituen, baita Vueltan irabazi nuena ere. Ar-gi dago ezaugarri aldetik itzuli handietako lasterkaria izan naizela, hor eduki ditut emai-tzarik onenak.

Pena izan da azkeneko bi ur-teetan gauzak ez direla atera: lesioak, erorketak... Batez ere aurten Caja Ruralera bueltatu ondoren.

Hobe da azkeneko bi urteetan tokatzea aurreneko bi urtee-tan baino. Egia da azkeneko urte hauetan dena batera to-katu zaidala baina, orokorrean begiratuta, nahiko zorte ona eduki dut.

Profesional mailan hasi zine-nean espero al zenuen gero lortutakoa?

Ez. Egia esan, txirrin-dulari-tzaz asko jakin gabe hasi nin-tzen eta ez nuen espero hain urruti iristea. Balantzea oso

ona da. Bizitako esperientzia guztiak nabarmenduko nituzke. Herri batetik atera eta ia mundu osoan egon naiz bizikletarekin, jende pila eza-gutu dut, beste hizkuntzak, beste kulturak... Asko zabal-tzen zara eta oso esperientzia aberasgarria izan da.

**Pertsona bezala Leitzatik, he-
rri lasai batetik, mundu ho-
rretara joatea nola hartu du-
zu?**

Ongi, egia esan. Moldatzen ikasten duzu. Azkenean zure “konfort gunetik” atera behar duzu eta beste esperientzia batzuk bizitzea, bakarrik bidaia-tzea, bakarrik moldatzen ikas-tea... nire ustez, oso aberasgarria da. Pertsonalki asko eman dit bizitza honek.

**Beti pertsona umil eta lasaia
izan zara. Lortu duzun arra-
kastak ez zaitu aldatu eta Lei-
tzan jarraitu duzu beste ba-
tzuek ez bezala. Adibidez,
Andorrara joan gabe.**

Ez dakit. Bakoitzak bere ebo-luzioa dauka. Ez dakit aldatu nai-zen ala ez. Bai, hemen denok txikitatik ezagutzen dugu el-
kar. Ezagunen artean eroso sentitzen naiz. Leitzan bizi-tzen jarraitu dut baina nork daki zer dakarren etorkizunak. Noizbait planteatu izan dut beste leku batzuetara bizitzera joatea. Balantzan jarri nuen eta ezetz erabaki nuen, baina ezin dut esan betirako hemen geratuko naizenik. Momentuz hemen gustura nago.

**Polita izan zen azkeneko Itzu-
lian Leitzan egin zizuten
omenaldia...**

Aurretik banekien zerbait egin nahi zidatela baina, egia esan, oso berezia izan zen eta oso polita. Oroitzapen ikaragarria da niretzat.

*«Uste dut kristoren
meritua zuela
Euskaltelek garai
hartan
euskaldunekin
bakarrik maila
horretan egotean,
baina handik hona
txirrindularitza
globalizatzen joan
da»*

**Zer ezin izan duzu egin zure
bizitza pertsonalean txirrin-
dularitzan profesionala iza-
teagatik?**

Ez pentsa gehiegi dagoenik. Azkenean, kirola egitea gusta-tzen zait. Ez zait ezer burura etortzen. Orain beste modu batean bizi naiz, semearekin lasaiago ibiliko naiz jolasten, lagunekin afaltzera joatea... Hori izan liteke faltan botako nuen bakarra, baina txirrindu-laritzagatik egin ezin izan du-dan zaletasun berezirik ez daukat.

**Lagunarteko afari horien fal-
ta izango zenuen behintzat...**

Bai, baina hor zaudenean mentalizatua zaude zure one-na ematen eta buruak hori es-
katzen du. Momentu horretan txirrindularitzan zentratuta nengoen eta ez nituen faltan botatzen parrandak. Pentsa-

tzen nuen ‘hau egin behar dut’ eta gozatu egiten nuen hori egiten.

**Badago zerbait semearekin
egin ezin izan duzuna taldeko
kontzentrazioetara joaten zi-
nelako edo uztea asko kosta-
tu zaizun zerbait?**

Bai, hori asko kostatzen da, baina badakizu gauzak horrela direla eta ezin dela ezer egin. Orain bai, lasaiago nago se-mearekin, eta gauza gehiago egiteko aukera ere edukiko dut.

**Realak omenaldia egin zizun.
Realzalea zara? Gustatzen zai-
zu futbola?**

Bai, futbola gustatzen zait eta Realak edo Osasunak edo eus-
kal taldeek irabaztea.

**Elkarrizketak egiteari uztea
eskertuko duzu, ezta?**

Ez ditut asko eduki, baina ez naiz elkarrizketen oso zalea. Ez zait gehiegi gustatzen.

**Orain bizikletan ibiliko zara
plazer bezala? Ez diozu utziko
txirrinduan ibiltzeari...**

Bai, gustatzen zait bizikletan ibiltzea. Baztan aldera edo Irurtzun aldera joan ohi naiz. Hemen trafiko gutxi egoten da eta hori eskertzen da bizikle-tan ibiltzeko.

**Etorkizunari begira, nola
ikusten duzu zure burua? Zer
egitea gustatuko litzaizuke?
Txirrindularitzarekin lotuta
ko zerbait?**

Egia esan, ez daukat ideiarik. Txirrindularitza gustatzen zait, hori garbi daukat, baina momentuz ez dakit zer egingo dudan. Momentuz denboraldi-txo bat lasai hartuko dut eta gero ikusiko da.

